

2018KO ABENDUA 20AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeia.

HILABETEA: Abendua .

URTEA: Bi mila eta hemezortzi

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA
NEKANE ZALDUA ESNAOLA
MIREN ARANTXA ZUFIAURRE GOIKOETXEA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak:

KOLDO AGIRRE MUJICA
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN
JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

ANGEL REDONDO FERNANDEZ

EZ DA ETORRI:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoa)

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak ere, parte hartzen du. Baita ere, Aitziber Yurrebaso andreak bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2018ko azaroaren 29ko onartzeko proposamena.

2018ko azaroaren 29ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko aldaketarik ez dagoelako.

2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a- Igartzako monumentu multzoko jauregia, errota, burdinola eta ermita kudeatzea: lizitazioa hitsik uztea. 2018BOCU0002

Alkate jaunak Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Igartzako monumentu multzoko jauregia, errota, burdinola eta ermita kudeatzeko lizitazioa hutsik uztea.

AURREKARIAK

1.- Dagokion lizitazio espedientea izapidetu ondoren, Udalbatza Osoak 2018-08-18an erabaki zuen ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEAren alde esleipena egitea.

2.- Fidantza eta Kontratu Legearen 150.2 artikulua adierazitako dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin eta egiaztatu ondoren dokumentazio hori aurkeztu izana, Alkateak 2018-07-20ean kontratua behin betiko esleitzen du.

3.- Lizitazioan parte hartu dutenei Ebazpena jakinarazi ondoren beronen aurka aurkeztu daitezken errekurtsoen aipamena eginez, esleipenduna suertatu zenak, hain zuzen ere, DOLAREA HOTELA, S.L.ek OARCera jo zuen kontrataziorako errekurtsorekia aurkeztuz eta alegatuz ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEAri ez zitzaiola utzi izan behar lizitazioan parte hartzen, pleguak eskatutako kaudimen ekonomikoa ez izateagatik

4.- 2018-10-17an, OARCek errekurtsorearen Ebazpena jakinarazten du, ondorengoa adieraziz:

“Estimar el recurso especial interpuesto por DOLAREA HOTELA, S.L. y anular la adjudicación del contrato a ALDABE, debiendo acordarse la retroacción del procedimiento a fin de que se excluya a la entidad adjudicataria de la licitación por no haber acreditado la solvencia económica en los términos exigidos en el PCAP y la retroacción de las actuaciones hasta la adjudicación del contrato a la siguiente empresa propuesta en el orden de clasificación previsto en el art. 150 de la LCSP. Así mismo, la estimación de este motivo del recurso hace innecesario el examen del resto de motivos articulados en el escrito de impugnación.

De acuerdo con el art. 57,4 de la LCSP, requerir al órgano de contratación para que de conocimiento al OARC / KEAO de las actuaciones adoptadas para dar cumplimiento a la presente Resolución.”

Proposamenak aurkezteko epearen amaieran, ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEAK DEUC izeneko dokumentuaren bitartez aitortutako kaudimen ekonomikoa ez zen iristen pleguan eskatutakoarena eta zuzentzeko emandako 3 laneguneko epean, beste erakunde batzuen ahalmen bidez osatu zuen.

Errekurtsoa onartzearen arrazoiak, zera da: dokumentuak zuzentzeko epea hasieran aitortutako kaudimena kreditatzeko edota akatsak zuzentzeko da baina ez, kaudimena osatzeko.

5.- 2018-12-05ean, DOLAREA HOTELA, S.Lek idatzia aurkezten du, OARCen Ebazpenak ematen dion eskubideari uko eginez.

OINARRI JURIDIKOAK

Sektore Publikoaren kontratuei buruzko Legearen 47tik 59ra doazen artikulak

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Udalbatza Osoari (kontratazio organoa da kasu honetan), ondorengo **ERABAKI PROPOSAMENA** egiten dio:

Lehenik. ALDABE KOOPERATIBA, S.L-ren alde egindako esleipen erabakia Udalbatza Osoak 2018-06-18an hartutakoa bertan behera uztea, plegu administratiboan eskatutako moduan kaudimen ekonomikoa kreditatu ez duelako.

Bigarren. Igartzako monumentu multzoko jauregia, errota, burdinola eta ermita kudeatzeko lizitazioa hutsik uztea, DOLAREA HOTELA, S.Lek OARCen Ebazpenak adjudikaziodun izateko ematen dion eskubideari uko egin diolako.

Hirugarren. Lizitazio berria martxan jartzeko beharra aitortzea horretarako baldintza pleguak idatziz, egun zerbitzua ematen jarraitzen bada ere, zegoen kontratua amaituta dagoelako.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Aurreko plenoan modu luzean gai hau komentatu zen eta ez dut errepikatu nahi, baina bi gauza komentatu nahi nituzke: abenduan gaude eta argi eta garbi ikusten da kasu honetan behintzat, oso torpeak zaretela kudeaketan. Ez da normala Igartza monumentu multzoko esleipena bukatuta eta gero, gu kalean enteratzea eta horrek ekarri duen guztiaren ondorioz Dolareak uko egitea. Ez dakit nahiko azalpen eman diren, gu harrituta gaude eta espero dugu hemendik aurrera esleipen hau ondo egitea.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Aurreko plenoan hitz egin zen baina pleno ondoren ere argitaratu dira hainbat gauza. Harridura ulergarria da, baina nire ustez ulergarria ez dena da zuek publiko egitea idazkariaren iritzia aurka hartutako erabakia izan zela, Nik uste dut horrelako lizitazioak nahiko enrebesatuak badira ere (idazkariak egiten duen txosten zabalean ikusi daitekeela ulertzea ere ez dela erraza, legea nola interpretatu behar den), horrelako gauzak eta gezurrak erabiltzea, mesede gutxi egiten duela. Informazio batzordeetatik pasatu da, txostena bera ere kontratazio mahaitik pasa zen, baina ez da desgraziz aurreneko aldia inpugnazioak egon direna, legegintzaldi honetan bertan (arkitektoari eta egitasmo orokorra egiteari buruzko kontratazioak ditut buruan) eta horrek lana zaildu egiten du eta guri tokatzen zaigu hori gestionatzea, nahiz eta erraza ez izan. Baina gauza bat da erraza ez izatea eta hobeto

kudeatu nahi izatea eta bestea esatea, idazkariaren aurka gabiltzala eta horrelako gauza, egiak ez direnean. Nik usten dut bere txostenean hori garbi geratzen dela horrela dela.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Bukatzeko bakarrik, funanbulista ederra eginda zaude!. Edozein gai planteatu eta zuk beti, politikari onen erara, zure pelikula kontatzen bukatzen duzu, baina gai honetan ezin duzuna egin da esan edo insinuatu oposizioaren arduragabekeriagatik gertatu dela gertatutakoa edo esan: zuek hau esan duzue eta esleipena oso zaila nola den...Esleipen hau kontratazio mahaiaren proposamenaren ondorioz ateratakoa izan zen eta esleitu egin zen. Guk zalantzak ditugu kontratazio mahaiak lan ona edo txarra egin zuen, baina beno...Posible ez dena da gertatutakoa kontua izanda, zu hona etortzea eta oposizioari bronka botatzea. Aitortu ezazu benetan, ez duzula ondo jokatu. Ez da posible gu talde bezala kalean enteratzea gertatutakoaz. Horrek beste guztia uzten du bigarren plano batean!.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik ez nuen esan nahi inolaz ere oposizioaren ardura denik. Ez naiz ondo esplikatu edo gaizki ulertu da. Akusazio publiko bat egiten denean, ez dut uste bigarren mailakoa denik. Esaten da, zergatik erabakitzen den lizitazioarekin aurrera jarraitzea, udal idazkariaren irizpidearen aurka. Txostena eskatu zen eta garbi geratzen da zein izan zen jarrera. Nik besterik ez dut esaten. Horrelako jarrerak ez dute batere laguntzen aurrera egiten. Horrekin, inondik inola ere, ez diot errua bota nahi oposizioari egin den bidearekin. Hori bai gauza bat esango dut, egindako bidea eta alde horretatik baita ere idazkariak hartutako erabakia aurrera egitearena (nahiz eta bi kaudimenak ez bete), nik uste dut pentsatuta eta zentzuz egin zela eta berriro ere berdin jokatu genukeela.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH BILDU)
Etorri gabea: 1

b- Plan del uso del euskera: prórroga del plan. 2018ESEP0016

Alkate jaunak Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Euskararen erabilera plana luzatzea.

AURREKARIAK

1. 2014ko apirilaren 3an erabaki zuen Udalbatzak Euskararen Erabilera Plana onartzea 2013-2017 V. plangintzaldirako.
2. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 5. atalaren arabera, plangintzaldiek 5 urteko iraupena izango dute. Beraz, egun indarrean dagoen plangintzaldia, VI.a hain zuzen ere, 2018-2022 urteetarako da.
3. Aipatutako Dekretuak 19. atalean esaten du plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean onartuko dela plangintzaldi horretarako plana.

4. 2018. urtean, ordea, Beasaingo Udalak ez du plan berririk onartu eta 2013-2017rako egindakoa aplikatzen jarraitu du. Baina, aplikazio hori benetakoa izateko espresuki hartutako erabaki bat behar du hurrengo plana onartzen den arte.

OINARRI JURIDIKOAK

Legeria aplikagarria:

- 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

Horren ondorioz, Herritarrek Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik.- V. Plangintzaldirako (2013-2017) onartutako planaren ezarpenaldia luzatzea VI. Plangintzaldirako (2018-2022) plan berria onartu arte.

Bigarren.- Erabaki honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.”

Jarrain ondorengo adierazi du: “Arrazoi nagusia plana ez onartu izatearena eta dagoena luzatzearena da, Dekretu berria onartzearekin dagoela eta horrek berak zalantzan jartzen du 86/1997 Dekretua, erabilpen planari dagokienez: Dekretu horren zirriborroa prestatzen alderdi guztiak eta baita ere UEMA ari gara eta berrikuntza nagusienak dira, legeak aurreikusitakoak behar bezala garatzen direla ziurtatzeko, udaletan egingo diren erabilpen planak eta proiektuak, hirigintzakoak barne, euskara eta erdararekiko izan dezaketen inpaktua aztertu egin behar dela eta horretarako udalei behartuko zaie txostena egitea eta horren arabera neurri zuzentzaileak hartu beharko dira. Gaur egungo dekretuarekiko salto handia ematen da, izan ere administrazioen arteko hizkuntza bakarra izan daiteke. Horren ondorioz, zentzuzkoa iruditzen zaigu dekretu horren zain egotea (badirudi urtarrian edo otsailean onartuko dela) eta hori oinarritzat hartuta lau zehaztutako urteko plana onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritziz hauek azaldu dira:

Zeilia Herrador andreak (Beasaingo EH BILDU): “Gu alde azalduko gara baina batzordean komentatu genuen urte hasieratik badakigula plana berritu behar dela urtea amaitu baino lehen. Abenduan gaudenez batzordean galdetu genuen zein arrazoi egon diren plan berria ez egiteko. Niri momentu horretan lotsagarria iruditu zitzaidan eman zitzaigun esplikazioaren artean egotea, irailean euskaraldiarekin hasi beharra zegoela eta ez dela astirik egon. Jakinda urte hasieratik plan berria egin behar zela, esatea astirik egon ez dela, larri iruditzen zait!”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Egia da zereginen artean bigarren mailan geratu zela, baina arrazoi nagusia da Dekretuarena da. Niri ere ez zait iruditzen arrazoiak izan daitezkeen euskaraldiarena. Horretan arrazoi duzu. Aipatu dudako arrazoiak pisua du plangintza berria egiteko, baina dakizun bezala, plangintza erraz egiten da eta kostatzen dena da plangintza hori egunerokotasunera ekartzea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- Mugikortasun mahaia: eraketa. 2018IDBO0038

Alkate jaunak Lurraldea batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Gaia: “Mugikortasun mahaia” osatzeko proposamena.

AURREKARIAK

1.- 2017-07-20. Udalbatza osoak onartu zuen Beasaingo iraunkortasunerako II ekintza-plana.

Plan horretan hainbat lerro estrategiko aurreikusten dira, besteak beste, “mugikortasun iraunkorra sustatzea eta garraio Publikoa indartzea” (L3).

2.- Estrategia hori garatzeko, bidezkoztat jotzen da, “mugikortasun iraunkorreko udal-plana” egitea.

3.- Plan hori osatzeko eta onartu ondoren hobekuntza proposamenak egiteko, komenigarria da izaera iraunkorra izango duen “mugikortasun mahaia” osatzea.

Horren ondorioz, Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Izaera iraunkorra izango duen “mugikortasun mahaia” osatzea. Orokorki (horrek ez du esan nahi beste batzuk atxiki ez litzaiokeenik) funtzioak hauek izango dira:

- “Mugikortasun iraunkorreko udal-plana” egiteko irizpideak ezartzea.
- Mugikortasun arloan aholkularitza lanak egin.
- Plan onartuta gero, hobekuntza proposamenak egin, momentu oro eguneratuta egon dadin.
- Mugikortasuna sustatzeko ekintzak bultzatu

Bigarren. “Mugikortasun mahaia” osatuko da:

- Zinegotziekin
- Udal teknikariek
- Tokiko Agenda 21
- Udal elkarteak (kiroletakoak, kultura eta emakume arlokoak, etab.)
- Udalerriko ikastetxeak
- Garraio publiko eta pribatuen ordezkariak.
- 3, Adinekoekin eta ezinduen pertsonekin erlazionatutako entitateak.

- Auzoetako ordezkariak
- Eskualdeko garapen agentziak
- Besteak

Hirugarren. Mugikortasun arloan eskumena duen batzorde informatzailean ondorengoa delegatzea:

- Mugikortasun mahaian, aipatutakoen artean, zehazki zein entitate parte hartu behar duten.
- Mahai hori martxan jartzea.

Laugarren. Hirigintza saila izango da aurreko atalean adierazitako helburuak betetzeko, egin behar diren ekintza guztien arduraduna.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da inolako iritzirik azaldu

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

5- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2018ko azaroaren 26tik abenduaren 14erarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira Alkateak 2018ko azaroaren 26tik abenduaren 14erarte emandako Ebazpenak.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.